


# Antxiñako fotografia



## Lizaur kaliaren hasierak

Barra aldeko tren-estaziñuak, orain posta-etxia danak, 1923ra orduko egindda baldin baeguen be, kotxientzako irispide bakarra euki eben urte askuan: Zazpibideta, parrokixa eta unibersidade aldeetik datorkixona. Estaziñua izandakotik Kale Zaharrera doian kalia etzan 1950ko hamarkadiaren azkenera arte zabaldu. Orduan Alzaa izena eukan kaletik tren-geltokira fateko, buelta haundi samarra emun bihar izaten geben agustiñuen konbentu-seminarixotik eta unibersidade aurretik zihar. Dana dala, orain dala berrogeta hamar bat urte, Olaiturri inguruan zubixa egin eta kale barri hori eregi zanian, herri barruko fan-etorrixak modernoketako lehenengo pausua emun zan. Kaliari **Lizaur arkitektua** izena ifiñi xakon. Baiña nor zan Lizaur jauna?

**Damian Lizaur Lasa** Kale Zaharreko 5. numeruan jaixo zan 1885ian. Aitta Goribar baserriko semia zan eta ama **Lasanekua**, hau da, XIX. gizaldixa ezkerro kale horretan --orain **Izarraitz** tabernia dan lekuan-- egon zan denda haundi eta ezaguneko alaba. Arkitekto-ikasketak Bartzelonan eta Madrillen egin ondoren, berrogei bat urtian hamaika proiektu eta lan burutu eben Oñatin eta Euskal Herriko toki ugarritan. Klase askotako obrak zuzendu zittuan Oñatiko kalia nahiz auzuetan. Danetik egin eben: bestiak beste, kaleko etxiak, txaletak, baserrixak, elizak, ermittak, konbentuak, eskolak, berdura-plazia, futbol-kanpua, zubixak eta fabrikak jaso edo barriztau zittuan; San Migel parrokixako zein Sancti Spiritus unibersidadeko planuak eta herriguneko topografia be moldau zittuan, eta Oñatiko Hirigintza-Plan Orokorra hil baiño lehentxuago modututa eukan.

Lizaurren heriotziak sakon astinddu eben Oñatiko herrixa. Eta ez pertsona oso ezaguna izatiarren bakarrik; istripu latz batian hil zalako be bai. Bere alaba Maria Antonia eta Beatrizekin batera taxisian oiala, trenak harrapo eben autua bete-betian Abadiñoako Matixena eta Traña auzuen arteko pasabidian 1956ko urrixaren 26xan. Taxisia be oñatiarra zan: Juan Azkune. Laurak hil ziran momentuan. Horregatik eta herrixari itzi otsan ondare arkitektoniko aberatsarengatik jarriko otsain Lizaur izena orduantxe egitten ziharduein kale zabal barrixari.

Fotografixa, ba, 1957. urtekoa izango da, seguru asko. **Olaiturri** ingurutik atarata dago eta obren lehenengo fasiari dagokixo, gerotxuago eraikitako etxebizitzaren arrastorik ezta agiri-eta. Ezkerretara ikusten dan etxia unibersidade zaharrian eskolak emuten zittuian **maristena** zan. Erdi inguruan dagueen porlanezko egitturia erreka gaiñeko **zubixaren oiñarrixa** da. Estaziñuan bagoi horixak ikusi leike oraindiok, trenbidiak beste hamar urte iraun ebelako martxan. Garagaltza auzoko baserrixak oraintxe letxe dagoz: **Etxebarrialde**, **Okunbardin**, **Kurpide**, **San Juan** ermittia. Otxueneko etxe barrixak be jasota egozen ordurako. Orain falta diranak dira: **Goizeko izarra** txaleta, Okunbardiñeko **teillerixia** eta Etxebarrialdetik Zubillagarako **bide klasikuaren** hasieria.

J. E.

Argazkixa Oñatiko udal artxibukua da. Eskerrak Xabier Zelaia eta Rafael Altunari eskuratu doskuen informaziñuarengatik.

**Oharra.** Orain hurrengo fotografixa zaharreko datu bat zuzendu biharrian gagoz: ezkerretan agerketan dan mutikotia ezta kirriñene-ko Juan Kruz Urtaza, Gogordueneko Felix Kortabarria baiño. Argibide hori Bittori Urtaza eta Jexux Erostarberi zor dostegu. Eskerrik asko!